

GIZONAREN OSASUNEAN

**eta baita ere familietan ordikeriak edo geyegi erari
gogorrak artzeak egiten dituzten kalteak zer nolakuak eta
zenbaterañoakoak izan oi diran.**



Eun pezetako sariya eta bitezarra Azpeitiya-n irabazitako moldaera

Probinzi onetako Diputazioak Azpeitiko erriyan aurtengo urtean egiñ bear diran euskal-jolasetarako ipiñi duan argibide edo irakurgayetatikan bat, da nik itz labur oen asieratzat izendatzen dedana, eta zeñaren gañean egingo dedan alegiña itzkuntza labur onetan zerbait esatea argitasunik aundienarekin kunpli ditezen gure Probinzi ontako agintari jaunen desioak, zeñak diran bertako jendearen artean zabal-tzea jakintasun zenbait modukoak, izan ditezen batez ere nekazari eta langille jendeen ongarriak.

Dударик gabeko gauza da oraiñ aitortu ditudan jende oek egiten dituztela okerbiderik asko erari kontuan, zergatik ez dakiten zeñ kaltegarriak eta zenbaterano irichi litezkean erariak ekarri litzakean gaitzak, bai nor beraren osasunean eta baita ere erariari emandakoen ondorengoenetan, izanik onelakoak sortzen dituzten umeak indargabe-koak, aulak eta askotan zenzugabeak edo burutik nasteko griña dakartenak eta ezer lanetako baliyorik ezdutenak. Gauza oen gañean itzegiten duanean gizon jakintsu batek esaten du, eziñ obetoago adierazozten dutela beren baliyoa ez bada numeroak edo kontu ateratzeak ordikeriaren bitartez munduko nazioetan etorri izan diran eta egunero etortzen dirala ikusten ditugun kalteak; eta izendatzen ditu Franzia-ko nazioari dagozkionak esanaz nazio onetan bataz-beste izanik urtero eun

eta ogeita bat milla gizon edo emakume Justiziko Tribunalen mendea arkitzen diranak egiñ dituzten okerkeriak gatik, esandako oetatik larogeita zazpi milla oi dirala erariari emandakoak, au da, erariak mendea artu eta daudenetakoak. Modu berean aitortzen dituanen Norte-Amerikako nazioari dagozkion kontuak, izendatzen degun gaionetan esaten du, atzeneko amar urte igaro diran oetan ill dirala erariak galduta irureun milla gizon; joan dirala karzela edo presidioetara bera dala medioz eun eta berrogeita amar milla, eta burutik nastu edo zoratu zayotela beste amar millari. Kontuan eduki besterik ez dago bada oraiñ aitortu ditugun gauza oek, ikusteko zenbat kalte eta zeññ aundiak izatera iristen diran erari gogorak gizonaren osasunean eta nazioetako ongi izate eta aberastasunean egiten dituanak; eta naiz ez izan gure Españaia eta aiñ guchiago berriz Euskal-erriko jendea geyenenbat galgarri gai onetan gaur arteraño ateratzen geranak, urte guchiz onuntz esan genezake nabarmentzen dijoazela oitura gaiztoak erari kontuan, zeñak kentzeko dan dudarik gabe biderik egokienetako bat adierazotzea eta erakustea jendeai erariak ekartzen dituan kalteak, naiz izan modu batean edobestean.

Ari naizen lantegi onetan segituko diot lenago aitortu deran gizon jakintsu arri esanaz berarekin ez dirala erariak bere izatez gauza kaltegarri eta iñola ere bear ez diranak, baizik moduz eta ordu egokietan artzen badira, osasunarako eta gorputza indartzeko dirala gauza egokiak. Baña ontarako alkarganatu bear dira beste bi gauza zeñak diran, eraria izatea legezkoa, au da, ongi eta garbiro egindakoa izatea, ezer nasterik gabe askotan oi dan bezela osasunarako kaltegarri diran zenbait sustantzi jenerorekin; eta bestea berriz, gizonak artzea erariak neurri jakiñ batean, geyegizkorik egiñ gabe eta batez ere orditzera irichi gabe. Era onetan beti ezagutu izan dira erari garbi eta ongi egindakoen ondasunak; eta emen dagokigu gogora ekartzea arako aita Meajer Jesusen Lagundikoak oraiñ dala eun eta irurogeita geyago urte esan ziona ardoari itz neurtu sonatu batzuetan:

Erari maitagarriya
Tristearen pozkariya
Dezu alaitzen begiya
Kentzen tristura aundiya
Mutuba ipintzen kantari
Eta errena dantzari.

Ardoa da bai, bere neurri moduzko batean artzen danean, gizona

ren indargordetzalle eta piztugarri bat, zeñaren gañean anziñako denboretatik asi eta gaurko egunetaraño aiñbeste gauza esandituzten nazio guztietako gizon iskribatzalleak beraren ondasunak zabalduaz; eta gauza guztiok gandik jakiña eta umetandik dotriñan ikasi genduana da Jesukristo gure Jaunak berak ardoari eman zion anditasun eta esate baterako adiskidetasun baten siñalea aukeratu zuanean erari guztien artean beraren bitartez egiteko egunero egun eta gizaldiak iraupena daukaten artean sortu eta pensatu litekean miraririk aundiena, nola dan meza santuan gertatzen dana. Ardoa izaten da ere gizonaren alegerantza guztietan lekurik nagusia eduki oi duana eta atzeragoan aitortu ditugun itz neurtuetan irakurri dan bezela ipintzen dituan odolaren indarrak eta egiñ azten dituan ere milla lanbide bere egoera oiturakoan gizonak iñola ere eziñ egiñ al dituanak.

Irichi geran puntu onetan ardoaren itzbidea aitortu degun ezker, esan bear degu nazio bakoitzak dauzkala bere ardo jeneroak, naiz ez izan gure Españiyan beziñ indartsuak eta gozoak; eta gañera berriz usariyoz ardoaren lekuan bertako jendeak artzen dituzten beste erari modu batzuek, nola diran sagardoa gure Euskal-errian, *cerveza* Alemaniyan, *koumis* Rusiyan, *pulke* Mejiko aldean, eta onela beste erari modu asko nazio eta zenbait probintzitan usariyo diranak. Ez dago zer esanik oen guztietatik eta beste erari moduen artetik guri geyenetsu zerbaite esatea dagokiguna dala sagardoa, bada beraren izenak dion bezela da *sagarraren ardoa*, eta frutu au da gure Euskal-erriko lurrian beste iñon baño geyago egiten dana eta bertako aberastasunik aundienetako iturria. Iñolaz ere gero eta geyago dijoa zabalduaz Euskal-erriko jendeen artean sagarraren landaketa, egiten dituztela lan obetan sayatzen diranak geyenenbat, arbola izendatutako onen gañean eta beraren gaitzen gañean biziro asko jende artean zabaltzea komeni diran jakinbideak, bada ezaguturik dagoan gauza da sagar arbolak izaten dituala gaitzak ez bakarrik bera galdu eta igartzen dutenak, baizik baita ere egiten dan sagardoari iristen zaizkanak, izaten dala guchi edo geyago ohea eta gustagarriagoa. Guztiogandik jakiña da ere sagardoak dauzkala bi izaera modu, au da, azaltzen dala batzuetan gorputz guchikoa eta lasto kolorekoa, eta beste batzuetan berriz loritasun edo gorputz geyagokoa, eta era berean gorri antzekoa guchi edo gozoagoa daraman sagarraren izaeraren bitartez. Sagardoa da eran erraza oi duan eraria, eta gai onetan ez dago galdetu besterik Donostiako eta bere inguruetako errietako sagardo eraleai; onela izanaren medioz da ere

irteera azkarreka, au da, laister kanporako bidea billatzen duana eragiñaz chisa maiz eta ugari. Onelakoa dan medioz egiten du ere garbitasun aundia gulzurrunetan, zergatik gure gorptz barrunbeko pusketan oetan chisa sortzen dan, eta baita ere pusigan galeraoaz leku onetan gelditzea iñoiz sortzen diran ondar ale chikiak, eragozten duala chitasa lekuko arriak osatu edo egitea. Onegatik da gauza ikusia eta jakiña, medikuen artean chisa lekuko arriak guchitan sortzen zaitzela sagardo eraleai, au da, sagardo asko egunero eraten duten jendeai. Bañan bere gauza guziak bezela badauzka sagardoak ere geyegiz artu ezkerore bere okerbideak: oetatik lenengoenak dira urdalla edo egoslekua zabaltzea, eta janaria gazitzea; eta azkenik orditzea edo moskortutzea.

Sagardoaken ordikeria

Sagardoa asko eraten danean sortzen duan urdalleko zabaltzea, da gauza chit bidezkoa. bada eraria irinchitzen danean, sartzen da urdallean zagi chiki baten barruan sartuko litzakean bezela, eta bat batera sartzen bada erari asko eta asko, zagiya premitzen da, geyegi zabaldu azten da, eta gelditzen da esate baterako puztuta balego bezela. Geroagoan eta denbora modu bat igarotzen danean, nola eta ere dijon galduaz bere bearduan ichurara biurtzeko indarra, izendatzen degun egosleku edo estomaguak, gelditzen da au zabaldurik edo lenago esan degun bezela aizez betetako zagi baten ichuran, zeñaren barrunbean sartzen diran janariak ezin bigundu edo egosi litezkean bear bezela, eta emendik etortzen da erretasun eta barrungo samintasuna zeña izendatzen dan biuztarra, gorako aize larria edo ito bearra, eta baita ere iñoiz buruko miñ galanta, askori gertatzen zayen bezela.

Bañan gauza esandako oen gañezkoa eta gizonari bere izatea galdu azten diona bere neurritz kanpora sagardoa artzen duanean, da beraien medioz artzen dan moskor aldia, geyegitan ikusten degun moduan. Sagardoaren ordialdiak ez du iñolaz ere egiten urirazekiaren bitartez artzen danak bez ñ kalte aundirik, eta ez da ere utzitzen gizona ganadu baten antzera biurturik, baizik lenda bizi mugitu azten du mingaña bear baño geyago, askotan sortzen dituala iñork ez zekien inoduko bersolariak, zeñak piskaka eta poliki geroagoan mutu biurtzen diran eta gañera anka elbarri, sagardoteritik echerako bidea ongi neurtuaz joateko moduan. Baña beste gañerakoan eta modu egokian sagardoa artutzen dala, da au chit erari osasungarria eta garbia, egarri

illtzalle gutzizkoa, eta eragiñazten duan chišaren bitartez baita ere gultzurrunetako eta pušigako garbitzallerik onetatikan bat.

Ardoaren ordikeria

Ardoa dago bere lekuan erari indarbertitzalleen artean errege balitz bezela, bada lenago esan degunez piztutzen du itzali nayeian dabillen odolaren indarra: bañan era berean berak ematen duan ordialdiya da ere gogorragua eta baita ere errazagoa sagardoarena baño, zergatik daukan erari onek baño askoz ispiritu geyago, naiz eta izan ardoa indar guchigokoa. Ardoarekin orditzen dan gizonak galdutzen du zenzua, mututzen zayo mingaña, elbarritzen zaizka ankak, eta itz batean gelditzen da ezereren konturik bere buruari eziñ eman lezayokean modu eta ichuran. Eta oraiñ aitortu degun estadu onetan sarri eta maiz ipintzen badu bere burua ardo-eraleak, denbora asko baño lenago ikusiko da beregan nola dijoan memoriya eta entendimentua illunduz gelditzen dala, urte asko igaro baño len gutzia ajolagabeturik, uzten dituala bere artu emanen edo echekeo lanen joan etorriak eta geroago eta maizago bere burua orditzen duala.

Urirazeki eta beste onelako erarien ordikeria

Bañan esandako gaitz oek guztiak atzera uzten ditu eta askoz okerbide aundiagoak ekartzen ditu gizonaren osasunean eta familietako pake eta ongi izatean urirazeki eta onen antzeko beste erari gogorrak neurritz kanpora artzeak eta beraren medioz orditzeak. Guztiz usariyo gaiztoa eta kaltegarriya ikusten degu esandako erari oen bitartez jende langille artean gertatzen dana, goizekoa esaten diotena eratean, bada barrungo illuntasuna piztutzeko aitzekian, irinchitzen dute gorputz barruan izan litekean menenarik aundienetako bat. Nola eta ere dagoan goizean utsik estomagu edo urdalla, gertatzen da orduan bere barrunbea modu onetan dagoala sartzen dan erari gogorrak gutzia erre eta kiskaltzen duala, eta gañera berriz erari ura dijuala zuzen zuzenean odolarekiñ nastutzeria eta berarekiñ bat egitera, geroagoan gorputzeko beste pusketa eta baztar guztiak erre eta galdu ditzan. ¿Nork izendatu litzake erari madarikatu onek gizonari ekarri lizazkean kalte izugarriak? Medikuentzako liburuetan irakurtzen da zardadeak gizonaren gorputzean sortzen dituan ajeak, da esatea, urteak bata bes-

tearen gañean asko osatuaz gizonaren izatean egiten dituzten kalteak eta erari gogorrek batezere urirazekiak gorputz barruan sortzen dituztenak, dirala alkarrekin pare-parekoak. Onda bada, ikusten degu zardadeak dauzkala berekiñ auldadea, besoetako eta anketako dardarak, begietako lausoa, buruko arintasuna edo memoriaren argaltasuna, eta itz batean ezertarako gauza ez dan moduan gorputza gelditzea; modu onetan bertan ez dago begiratu besterik ordikeriari emanik dagoan gizonari, ikusteko dala au denbora baño lenago zartutakoa, bada naiz eta urte guchi eduki berekiñ, agertuko ditu gizon zar batek azaltzen dituan ajeak berak, zeñak lenago aitortu ditugun; egunero ikusi gentzake gauza au gure begiakiñ eta beraren bidez konturatu ere, erari gogorrek ez dutela egiten besterik ez bada bear baño lenago gizona zartutzea, edo *zardadea aurreratzea*. Gauza onek onela izan bear duala dago begien aurrean, bada gelditzen bagera denbora piskacho batean pensatzen beraren gañean, ikusiko degu gure urdalla eta esteak daudela egiñak Jaungoikoak lurraren gañean ipiñi zituan janari eta erari jeneroak beren barrunbean irinchi eta egosteko, izan ditezen modu onetan gorputzeko biziaren sostenigarri eta indarbertizalleak; eta guk beartzen baditugu esandako gorputz barrunbeko pusketa aek, emanik berari oituraz kanpoko beargayak eta berak lana egiteko bear ez bezelako jenero moduak, beti arkituko dira premiturik eta esate baterako estuasunezko lantegi bat egiten, etorririk emendik beraren nekea edo ler egitea, geyegi korri azten zayon zaldi baten antzera. Modu berean beartzen dira ere gibela, biotza, buruko garunak, gultzurrunak, eta itz batean esateko gure barrunbe guztia, zergatik leku guztietara iristen dan odolarekin nasturik dijoan menenoa, eta zeña dijoan piskaka alferrik galtzen izendatu ditugun pusketa aek guztiak, sortuaz beretako bakoitzean bakoitzari dagozkion ajeak, zeñak bat banaka izendatzea guri ez dagokigun leku onetan. Eta urirazekiaren bitartez orditzen dan gizona ez dago berriz zer esan gelditzen dala egiaz ganadu baten antzera, bada erari gogor onek eta beste bere antzekoak ematen duten ordialdia da oraindik ardoarena baño askoz pisuagoa eta kaltegarriagoa. Urirazekia eraten danean bazkaldu ondoren usariyo dan moduan kopacho bat edo beste bakarrik artzen dala, eziñ esan lezake dala kaltegarria baldiñ eraria bada ardoagandik datorrena edo ardoarekiñ egiña, bada jakiñaren gañean egotea komeni dan gauza da urirazeki merke eta tabernariak geyenetan edo beintzat askotan saldu oi dana, izaten dala erremolachari edo patatari eta oraindik okerragoak diran beste

gauza askori ateratzen dioten ispirituarekin egiña, eta oraindik askotaz kaltegarriagoa osasunarako ardoarekin egiten dana baño. Gauza onen egibidea daukate izendaturik eta baita ere eskarmentuz ikusirik urirazekiaren lanbideak nolakoak oi diran jakitera beren alegiñak egin dituzten mediko eta beste gizon jakintsu askok, zeñak probaturik daukaten eta baita ere ontzat emanik, ardoarekiñ egiten ez diran ispiritu klaseak daukatela zortzi aldiz illgarri edo meneno geyago matsaren zumutik datorrenak baño: bada ikusi dute edozeiñ animali ill erazo nai izan dutenean urirazekiaren bitartez, asko izan dutela ematea onetarako zortzigarren partea, ardoa ez izanikan beste gauza modu batzuetatik ateratako ispirituetatik; ateratzen dutela emendik kontu garbia eta begien aurrean dagoana, lenago aitortu degun bezela, zortzi aldiz illgarri geyago daukala ardoarekin egiten dan ispirituak baño, beste sustantzi milla modukoakin egiñ oi dutenak. Onelakoen bidez orditzen dan gizona gelditzen da aotik lerdea dariola, mugitu ezin dala, eta buruko argitasun guztia galdutzen duala: eta ez badu denboraz eta laister utzitzen erari illgarri au artzeko usariyoa, egin lezake kontu dijuala saltoka bere azkena arrapatzera, bada barrunbean daukan pusketa guztiak ari dira galdutzen eta igartzten batez ere odolak korrimentua daukan zañak, urdalla edo estomagua eta gibela; pusketa au galdutzen zayotenean eraleai esan oi du jendeak odolak ur biurtu zaiztela, bada ikusi oi dira sabela aunditu eta bertatik ateratzen diozkatela picharka barrungo urak, naiz izan alferrik, zergatikan denbora guchiko iraupena eduki oi duan beren biziak, estadu onetara bein iristen diranean.

Ordikeriaren ondorenak

Gauza oek onela izanik ¿zer esan gentzake orain bere ondorekoztat nai eta nai ez eraleak ekarri bear duan lantegiaren gañean? Erantzuer a emango diogu galdeera oni gogoratuaz antziñako esangi ura, au da, arbola charrak frutu onik eziñ eman dezakeala. Alde batera bakarrik balitz kaltegarria gizon eralea edo ordia, oraindik irichi lezake zerbait barkamen konturaturik aragiaren argaltasuna, baña modu askotan izaten da kaltegille erariaen mendean eta ordikerian bere burua naspillaturik daukan gizon edo emakumea Bata da lenago esan degun bezela, sortzen dituan umeak izatea edo argalak, edo zenzuga-beak edo biotzeko miña egiten zayotenak eta beñere bear bezelako gi-

zonak izatera eziñ irichi litezkeanak, zergatik diran sustrai charreko landareak eta azi charrarekin eregiñak. Gauza au onela dala egunero ikusten da erri aundietako umeen eritegiyetan, bada leku oetan ostatuz dauden gañoak eunetatikan erdiak bañon geyago dira guraso ordien frutuak eta beren denbora guztian beren aita eta amaren izenak madarikatuaz bizitzeko eskubidea daukatenak, esate baterako. Gañera berriz onelako gazteritik ¿zer espera lezake gauza onik eta probechuzkorik berak bizi diran gizaldiak? Beti argaldasunaren eta gaitzaren mendean arkitzen badituzte beren buruak, ez bakarrik baliyo ez dute zerbait gauza on berengandik emateko, baizik dira beste beren inguruko guztien kaltegille; emendik atera gentzake bada kontua eraleak egiñ bide onetan bakarrik bere semeentzat eta bere bizilagunentzat ekartzen dituan kalte izugarriak. Ez dago berriz zer esanik bere buruaren kontua eziñ eduki duanak eta arrazoya eta memoriya erariaren mendean ipintzen dituanak, onela gelditzen dala parez pare ganadu edo animaliak, eziñ eduki lezakeala bere echeko joan etorri edo artu emanen konturik eta onelakoen echerako gobernua izan oi dala egunero eta geyegitan ikusten degun modukoa, ondatzen dituztela baldiñ jabe badira beren ondasunak, eta beti miseriaren azpian beren buruak dauzkatela, beren eskuetako lanaren bear badira familiyak mantentzeko. Baita ere beste gai batean azaltzen da eralea beretzat eta beste inguruko guztientzat kaltegille eta gaiztakeriaz betea. Da ura familietaiko eta lagun arteko pakearen etsaya, zergatik askotan oi du ordikeriak berekiñ sesiyoa eta pakerik eza; ez dago galdetzera joan besterik gai onetan esaten ari geran gauza onen egibidea karzela eta presidioetara eta leku aetan millaka arkitzen diran eriotzagille eta gizon galduak erantzungo digute eraria dala medioz berak arkitzen dirala izaera negargarrian. Aitortu ditugun itz-bide labur oetatik konturatuko gera bada erariak neurritz kanpora artzen danean, edo erariari emandako gizonagandik, ezin gauza onik etorri litekeala; bada ez bakarrik onelakoak ondatzen du bere burua galdurik osasuna, baizik da kaltegarria bere umeentzat, echeko interesentzat, eta inguruz bere bizilagunentzat.

Ordikeria errietatik kentzeko erremedioak

Nola eta ere ez degun uste euskal-jolas oetarako Probintzi onetako Diputazioak ipintzen dituan puntuak izan bear dutela luzapen aundikoak, baizik langille eta nekazariari zerbait erakusteko modukoak,

eta era onetan laburrak eta aldan argitasunik geyenarekin esanak, bukaera emango diogu eskuartean dakargun oni esanaz, bertanborean aitortu degun gaitz moduak, bear dituala erremedio aundiak eraleai bere griña charra sustrayetik kentzeko modukoak. Eta naiz ez izan gure egitekoa emen erremedio au izendatzea, ez degu aitortu gabe utziko gure pensamentu modua gai onetan, esanaz erremedio oen guzien zimendua dala gazte jendeari ematea umetatik argitasun eta ikasbideak, zeñaren bitartez konturatua egon dedin *dala gizona*, au da, Jaungoikoak bere antzera egindakoa eta daukana berekin entendimentu eta memoriaren doaiya, zeña eranaren bitartez galtzera irichi litekean geldituz modu onetan bere buruaren jabe ez dala eta jende guztiaren aurrean barregarri azaltzen dala, ez izanik beretzat eta beste guztientzat gauza kaltegarri eta lotsagarri bat baizik. Orañ aitortu degun erremedio modu au bera aukeratu zuan Beljikako nazioan 1882-garren urtean egin zan gizon jakintsuen billerak, ordikeria eta urirazekiaren kalteak erremediatzeko alkarganatu ziranean, esanaz ezagutu bear zala entendimentuko argia edo jakinduria eta gizartetik miseriya ezkutatzea, izan bear zuela ordikeria galdu azteko biderik zuzenen edo erremediorik egokienak. Eta gauza onen sinismena ikusi liteke noiz nai nazio artan bertako umeen eskoletan gai onetan ematen diozkatzen erakus-bideen bitartez, sartuaz gazte jendearen buruetan chikitandik urirazeki eta onen antzeko erari gogorrek egiten dituzten kalte izugarriak nolakoak izan oi diran.

Beste nazio batzuetan, nola diran Alemaniya eta Rusiya aukeratu izan dute bertako nagusitza edo aginbidea daukatenak galdu azteko alduten guztia jende artean urirazekia erateko usariyoa, ipintzea erari oni eta bere antzekoai pagatukizun aundiak, modu onetan izan ditezzen erari garestiak eta asko inork, eta guchiago berriz langille jendeak, eziñ eran al ditzan modukoak. Naiz eta ezagutzen degun gure aldetik atzeneko erremedio au ere ez dala ez konturatzekoa, beti uste degu indar geyagokoa dala lendabizi aitortu deguna, zergatik onen bidez artzen duan beardan ezaguera gazte jendeak alde egiteko gauza kaltegarri eta ondatzallearen ondotik, badakielako au artutzetik eziñ etorri lezayokeala gizonari ez bada ondamera eta bere buruaren eta ondo-rengoengalera negargarria.

Iskribiturik utzi ditudan errenkara oetan egiñ det aldedana argitaratzeko urirazekiak eta onen antzeko beste erariak gizonaren osasunean eta familietan egiten dituzten kalteak: eta neretzat irichi litekean

saririk onena izango litzake jakitea beren bitartez zerbait gauza ongarrri eta probechuzko ingurutu duala beretzat gure Euskal-erriko jende nekazari eta langilleak, zeñaren argibidetarako egiñ dedan orain eskuartetik utzitzen dedan nere lantegi laburra.

MARTÍN ARAMBURU

EN EL PATRONATO DE OBREROS DE BILBAO

Conferencia del señor Pavía

Ante un numeroso público, mayor si cabe, que en días anteriores, se celebró el 16 del corriente por la tarde la cuarta conferencia de las organizadas por la Junta de la Peregrinación á Tierra Santa, y la segunda que está á cargo de D. Joaquín Pavía, Diputado provincial de Guipúzcoa.

Conocía bien el numeroso público que anoche se reunió en el Patronato, las dotes que como orador elocuente posee el Sr. Pavía, y nadie dudaba que la segunda conferencia de dicho señor, había de ser notabilísima, y así fué en efecto.

El tema elegido para su disertación era «Roma Pagana», y en el desarrollo del mismo brilló notablemente.

De los cuatro puntos en que dividió su discurso, hubo de suprimir el tercero, «El Palatino», debido á lo avanzado de la hora.

La vidaprivada, fué el primer punto que explicó, dando á conocer, ayudado de preciosas proyecciones, las viviendas romanas y sus estilos de construcción.

Se ocupó de los esclavos, citando las crueldades que cometían con ellos los Romanos, y tal fué su manera de exponer, que más de una lágrima asomó en los ojos de los oyentes.

También, explicando las costumbres de las damas romanas, sus modas, sus tocados, etc., lo hizo muy á la perfección.